

2016KO ZEMENDIAREN 10EAN EGINDAKO APARTEKO UDAL BILKURA

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2016ko zemendiaren 10ean, arratsaldeko 7:00etan

BATZARKIDEAK:

Lehendakaria: AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA andrea (EH Bildu)

Zinegotziak:

- MARÍA ISABEL BARTUREN LASA andrea (EH Bildu)
- EGOITZ ABIO ARRILLAGA jauna (EH Bildu)
- AITOR IBARZABAL BARTUREN jauna (EH Bildu)
- AITOR APRAIZ IMATZ jauna (EAJ-PNV)
- GORKA AZAOLA LÓPEZ DE GEREÑO jauna (EAJ-PNV)
- JOSÉ LUIS MARÍA URRUTIA BILBAO jauna (EAJ-PNV)
- JOSÉ ANTONIO ABIO ERKOREKA jauna (EAJ-PNV)
- ALAIN GÓMEZ BILBAO jauna (BAKIOBAI)
- JOSU GARAI VARA jauna (BAKIOBAI).

IKER MURUAGA GOIKOETXEA jauna, EAJ-PNV taldeko zinegotzia, ez da bertaratu.

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren aparteko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deusela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate jaunaren lehendakaritzapean honako gai hau eztabaidatu eta erabagi da:

1.- 2016KO URRIAREN 27AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZEAREN AKTEA IRAKURRI ETA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2016ko urriaren 27ko ohiko udalbatzaren akta, eta alkateak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotzietz akta hori ago batez onartu dabe.

2.- KULTUR ETA KIROL JARDUERETARAKO DIRU-LAGUNTZEI BURUZKO ORDENANTZEA BEHIN BETIKO ONETSI, HALA BEHAR

BALITZ, BEHIN BAKIO KIROL TALDEAK AURKEZTUTAKO ERREKLAMAZIOAK EBATZI OSTEAN.

Gaiari hasiera emonaz udal idazkariak, prozedurearen barruan orain arte egindako tramiteak zeintzuk izan diran gogoratu dauz, era honetara:

“Udalbatzak, 2016ko irailaren 22an egindako ohiko osoko bilkuran, ordenantzea hasikera batean onartzea erabagi eban.

Horren ostean, espedientea 30 egun baliouduneko epean jendaurrean egon zan ezker, horretarako, 2016/09/26ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, herriko iragarki-taulan eta herriko web orrian ipinitako iragarkien bidez, erreklamazino-idazki bakarra Bakio Kirol Talde alkarteak aurkeztutakoa izan da.

Erreklamazino horreen bidez, ordenantzan hiru gai honeei puntuazinoa emotea eskatzen dabe:

Batetik, alkartearen antzinatasuna puntuatzea hurrenkeraz, ez dalako egokia oraintsu sortutako alkarteak eta Bakion urteak beharrean egin dauzan alkarteak kontsiderazino bera izatea.

Bestetik, alkarteek daukiezan bazkide kopuruak aintzat hartzea, ze, esate baterako, ez da egokia bazkide bi baino ez daukan alkarteak hogeita hamar bazkide daukazan alkartearen kontsiderazino bera izatea.

Eta, azkenik, deialdira aurkeztutako proiektuak edo helburuak baloratzea.

Erreklamazino horreen ganeko txostena egin da, eta bertan ondorioztatzen da eurok kontuan hartzea legearen aldetik bidezkoa dala”.

Hori esanda, Amets Jauregizar alkate andreak berbea hartu eta hauxe adierazo dau:

“2016/10/27an kirol eta kultura alkarteakaz batzarra egin genduan, batetik, deialdian aurkezten diran eskabideak zeintzuk erispideren arabera baloratuko diran azaltzeko; eta, bestetik, Bakio Kirol Taldeak aurkeztutako erreklamazinoak aztertzeko.

Batzar horretan erreklamazino horreen ganean berba egin ostean, alkarren adostasunez hauxe ebatzi zan:

1.- Bazkideen kopuruaren ganean, ulertutzat emon zan atal hori ordenantzan puntu 2gaz puntuatuta egoala. Eta hori horrela ixtea ontzat emon zan.

2.- Alkarteen antzinatasuna 1,5 puntuagaz baloratzea.

3.- Ordenantzean atal bat sartzea hauxe baloratzeko, 3,5 puntuagaz: proiektu bakoaren alde barritzaile eta osogarriak, beste ataletan jorratu bakoak (3,5).

Horrenbestez, udal gobernuak dakarren proposamena da Bakio Kirol Taldeak aurkeztutako bigarren eta hirugarren erreklamazioak aintzat hartzea eta, ondorioz, ordenantzan txertatzea”.

Horren ostean, zinegotziek botoa emoteari ekin deutse. Beraz, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau:

1.- Kultur eta kirol jardueretarako diru-laguntzei buruzko ordenantzea behin betiko onartzea, erabaki horren azalpen atalean zehaztutako aldarazpenak barruan dirala; izan be, aldarazpenok Bakio Kirol Taldeak aurkeztutako erreklamazioen ondorioz egin dira.

2.- Ordenantzearen aldarazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean oso-osorik argitaratu eta hamabost egun baliodun epea amaitu eta berehala indarrean sartzea, Toki Araubidearen Oinarriei buruzko Legearen 65-2 eta 70. artikuluen arabera.

3.- AGIRIAK EMOTEAGAITIKO ORDENANTZEAREN ALDARAZPENA ONARTU HASIKERA BATEN, HALA BEHAR BALITZ.

Zinegotziak onartu gura dan ordenantzearen aldarazpenaren jakitun dagozan ezker, Amets Jauregizar alkate andreak horren ganeko azalpen laburra emon dau, esanez indarrean dagoan ordenantzea, urteetan bere horretan egotearen ondorioz, zahartuta geratu dala, eta, beraz, eguneratu beharra dagoala gaurko beharrianetara egokituz, eta, horregaitik, ordenantzan jaso dirala udalean herritarren zerbitzurako emoten diran agiri guztiak.

Horren ostean, zinegotziek botoa emoteari ekin deutse. Beraz, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau:

1.- Agiriak emoteagaitiko ordenantzaren aldarazpena hasikera batean onestea.

2.- Espedientea 30 egun balioduneko epean jendaurrean ipintea. Horretarako, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, herriko webgunean eta herriko taulan argitaratuko da beharrezko iragarkia. Epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik egon ezik, erabagia behin betikotzat hartuko da. Ordenantzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean oso-osorik argitaratu eta 2017ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu eta ordutik aurrera aplikatuko da.

4.- JARDUERA EKONOMIKOEN GANEKO ZERGEA ARAUTZEN DAUEN ORDENANTZEAREN ALDARAZPENA ONARTU HASIKERA BATEN, HALA BEHAR BALITZ.

Jarduera ekonomikoen ganeko zergea arautzen dauen Foru Araura egokitzeko asmoz, Bakioko ordenantzan herriko kaleak zerga kategoriaren bitartez sailkatzen dira eta indizeen sailkapena ipinten da:

Herriko kaleen zerga kategoria

1. maila 2,0
2. maila 1,9
3. maila 1,8

Dana dala, kontuan euki behar da zerga hau milioi bi baino gehiagoko ekoizpena daukien enpresei baino ez jakela aplikatzen.

Horren ostean, zinegotziek botoa emoteari ekin deutse. Beraz, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau:

1.- Jarduera ekonomikoen ganeko zergea arautzen dauen ordenantzearen aldarazpena hasikera batean onestea.

2.- Espedientea 30 asteguneko epean jendaurrean imintea; izan be, horretarako, iragarkiak argitaratu beharko dira Bizkaiko Aldizkari Ofizialean zein herriko taulan. Epe horren barruan interesatuek espedientea aztertu eta jagokezan arrazoibideak aurkeztu ahal izango dabez. Arrazoibiderik aurkeztu ezean, erabagia behin betikotzat hartuko da.

3.- Ordenantzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 2017ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu eta ordutik aurrera aplikatuko da, eta horrela jarraituko dau aldarazoten ez dan bitartean.

5.- ONDASUN HIGIEZINEN ZERGEA ARAUTZEN DAUEN ORDENANTZEAREN ALDARAZPENA ONARTU HASIKERA BATEN, HALA BEHAR BALITZ.

Udal idazkariak gogora ekarri dau zeintzuk izan diran prozeduraren barruan orain arte egindako tramiteak, era honetara:

“Udalbatzak, 2016ko bagilaren 30ean egindako ohiko osoko bilkuran, ondasun higiezin zerga kuotak hasikera batean onartzea erabagi eban.

Ebazpenaren edukia hauxe izan zan:

Uri-ondasunetan ezarri beharreko Ondasun Higiezin gainera Zergako karga-tasa % 0,1727koa izango da.

Era berean, honako tasa bereizi hau be ezarriko jake bizitegi erabilera dabezan uri-

ondasun higieziei, ondasun higiezinak balioesteko katastroari buruzko arautegian zehaztutako erabileren arabera honako katastroko balioa gainditzen dabenean:

*Erabilera: BIZITEGIA (V)
Katastroko balioa: 400.000 euro
Karga-mota: % 0,1986*

Landa-ondasunetan ezarri beharreko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergako karga-tasa %0,126koa izango da.

Lurralde Historikoko Higiezinaren Foru Katastroari buruzko 3/2016 Foru Arauko bigarren xedapen iragankorra kontuan hartu behar daben ondasun higiezin bereziei %1,260ko karga-tasa ezarriko jake.

Bizilekua ez diranez bizitegi-erabilerako higieziei ezarri ahal jaken hautazko gainordaina: Zergako kuota likidoaren gaineko %50eko errenergua ezarriko jake.

Horren ostean, espedientea 30 egun balioduneko epean jendaurrean egon zan ezkeror, horretarako, 2016/07/15eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, herriko iragarki-taulan eta herriko web orrian ipinitako iragarkien bidez, eta, epe horren barruan, inoren erreklamazio edo iradokizunik ez zala jaso kontuan izanik, udalbatzaren erabagi ha behin betiko bihurtu zan.

Gauzak horrela, ordenantzearen araudi atala aldarazotea proposatzen da (Bizkaiko Lurralde Historikoaren Higiezinaren Foru Katastroari buruzko maiatzaren 18ko 3/2016 Foru Araua eta Ondasun Higiezinaren ganeko Zergari buruzko maiatzaren 18ko 4/2016 Foru Araua dirala eta).

Horren ostean, Amets Jauregizar alkate andreak hauxe adierazo dau:

Orain egiten doguna zera da: 2016ko bagilaren 30ean hartu ziran erabagiak garatu.

Batetik, erabagi zan bizilekua ez diranez bizitegi-erabilerako higieziei ezarri ahal jaken hautazko gainordaina: Zergako kuota likidoaren gaineko %50eko errenergua jarrea.

Lehenengo eta behin esan behar da, erabagi hori hartzeko arrazoia hauxe izan zala:

Bakion etxebizitzaren %60 hutsik dagoz. Horrek, esan gura dau herriko zerbitzuen kostua (argiteria, lorazaintza, kaleen garbitasuna, eta abar,) etxebizitzaren ganerako %40ren pentzura dala.

Ez da bidezkoa %40 horrek herriaren gastuen %100 bere gain hartzea; uste dogu, gainontzeko %60k be herriaren mantenimenduari eusteko ekarpena egin behar dabela.

Alkate andreak, adierazo dau be bizilekua ez diran bizitegi-erabilerako higiezi %50eko erreargua jarreak salbuespenak daukazala, ordenantzan azaltzen diranak hain zuzen be.

Halanda ze, ordenantzan azaltzen diran hautazko hobarien ganeko azalpenak emon dauz.

Horren ostean, zinegotziek botoa emoteari ekin deutse. Beraz, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau:

1.- Ondasun higiezin zergea arautzen dauen ordenantzearen aldarazpena hasikera batean onastea.

2.- Espedientea 30 asteguneko epean jendaurrean imintea; izan be, horretarako, iragarkiak argitaratu beharko dira Bizkaiko Aldizkari Ofizialean zein herriko taulan. Epe horren barruan interesatuek espedientea aztertu eta jagokezan arrazoibideak aurkeztu ahal izango dabez. Arrazoibiderik aurkeztu ezean, erabagia behin betikotzat hartuko da.

3.- Ordenantzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 2017ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu eta ordutik aurrera aplikatuko da, eta horrela jarraituko dau aldarazoten ez dan bitartean.

6.- SASTARRAK BATZEGAITIKO ORDENATZEAREN ORDENANTZEAREN ALDARAZPENA ONARTU HASIKERA BATEN, HALA BEHAR BALITZ.

Hasteko, Ametz Jauregizar alkate andreak, adierazpen hau egin dau:

Udal taldekook urriaren 19an batzarra egin genduan azaltzeko zeintzuk ordenantza aldarazo behar ziran eta zeintzuk ziran aldarazpenon nondik norakoak.

Urriaren 24an ordenantzen aldarazpenak zelakoak izan behar ziran zehaztu zan, eta zemendiaren 4an zinegotziei posta elektronikoz ordenantzen aldarazpenen agiriak bialdu jakezan. Ostean, zemendiaren 7ko informazino batzarrean agiri horreen azalpenak emon ziran, zinegotzi bakotxak proposamenak edo iradokizunak egin daizan.

EH-Bildu taldearen aldetik egin zana honakoa izan zan: urriaren 19n azaldutako ordenantzen artetik lau kendu hobeto lantzeko asmoz, aurrerantzean landukeran, korporazinoari azaltzeko.

Sastarrak batzeagaitiko ordenantzaren aldarazpenari jagokonez, uste genduan nahiko landuta egoala, eta, ondorioz, udalbatzak onartzeko moduan, ze ordenantzea finkatzeko orduan egindako urrats guztien barruan ez genduan proposamen zehatzik jaso, jakinda

be edozein proposamen entzuteko prest gagozala, gure asmoa ordenantzeak ahalik eta adostasunik zabalenagaz onartzea dalako.

Alain Gomez, BakioBai taldearen izenean, dino euren proposamena ordenantzaren aldarazpena hurrengo udalbatzarako ixtea dala, arrazoi honeek dirala-eta:

Egia da urrian zehaztu zala udalbatzara zeintzuk ordenantza ekarriko ziran, baina ordenantzen edukiaren barri aurreko asteko barikuan, azaroak 4a, euki ogu, eta orduan hasi gara horreen edukia aztertzen.

Sastarrak batzeagaitiko ordenantza aldarazpenaren kasuan, aldarazpenaren arrazoiaren edo filosofiaren jakitun egon gara aurretiaz, hau da, udal zerbitzua zenbat eta gehiago jaso, orduan eta gehiago ordaindu behar dala.

Baina, ordenantzaren eranskinaren tasaren tarifen zerrendan agiri dan hirugarren atala dala-eta eztabaida izan genduan udal gobernuagaz, tasen lehenengo proposamenean 25 m2 baino gehiagoko establezimenduek ordaindu beharko dabean tasak gehitzea zala-eta bost kategorietan sailkatzen ziralako. Izan be, ordenantzearen aldarazpenaren helburua diru biltzea barik, tarifak antolatzea izanik, zergadunek era justuagoan ordaintzeko, Ametsek, azkenik, beste sailkapen bat proposatu deusku, bertan 70 m2 baino gehiagoko establezimenduek ordaindu beharko dabean tasak gehitzea dakarrena, baina hiru kategorietan bananduta, eta tasak %200 eta %300 gehitzea kenduta. Eta azken proposamen horregaz Bakiobai taldea ados dago.

Baina, gaiari buruzko erabagia hartzeko atzerapenaren arrazoia ez da hori. Gu proposamenagaz ados egon arren, arrazoia da, aldarazpenaren proposamenak eragina izango dauan herritarrei horren barri emon behar jakela eta euren eritxia entzun. Eta, ostean, udal taldeok batzartu eta tasen nondik-norakoari buruzko adostasuna lortzeko ahalegina egin beharko dogu.

Alkate andreak erantzun deutso esanez: aste honetako astelehenean udaleko hiru taldeok batzartuta egon ginan gaur onartu guran diran ordenantzak aurrean daukaguzala. Sastarrak batzeagaitiko zerbitzuaren ordenantzaren ganean berba egin zan, eta hor esan zanaren ondorioz, merkataritza establezimenduei jagokezan tasak aldarazo egin doguz (25 m2 baino gehiago daukiezan lokalei tarifak igo beharrean 70 m2 baino gehiago daukienei gehituz, baina hiru tartetan sailkatuta) astelehen horretan aurkeztu ziranakaz konparatuz, baina, inork be ez eban proposatu establezimenduen jaubeekaz batzarrik egin behar zanik euren eritxia jasoteko, ezta aurreko egunetan be, hori batetik, eta, bestetik, zerga ordenantzea agiri aldagarria da, urtero-urtero eguneratu daitekena errealidadearen arabera, beraz, ordenantzaren aldarazpenari buruzko eztabaida beti dago zabalik.

Beraz, ordenantzearen onespena mahai ganean ixten bada, argi izan behar dogu proposatutako tasa ez dala indarrean egongo 2017ko lehenengo hiruhilekoan.

Esan beharrekoa da gaur onartzeko ekarri diran tasak aplikatu ezker, zergadunen erroldaren %45,97ek ordaindu beharreko tasak %9 gitxituko dirala, gaur egun indarrean dagozan tasagaz alderatuta, behintzat. Aprobazinoa mahai gainean ixteko prest gagoz eta merkataritza establezimenduen jaubeekaz batzartzeko be, baina argi itxi behar da aldarazpena ez dala kuantitatiboa, kualitatiboa baino, hau da, asmoa ez da erroldan zehazten dan baino diru gehiago biltzea, herritarrek era justuagoan ordaintzea baino.

Aitor Apraiz zinegotziak, EAJ-PNV taldearen izenean, dino ados dagoala erabagirik ez harteagaz, baina ez dala zuzena aste honetako asteleheneko informazio batzordean proposamen bat aurkeztu udalbatzara ekarteko eta, gaur goizean, horren orde proposamen barri bat jasotea, ze gure taldeak ez dauka astirik hori aztertzeko eta, beraz, bere proposamena ekarteko.

Horren ostean, zinegotziek botoa emoteari ekin deutse. Beraz, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau:

Sastarrak batzegaitiko ordenatzearen aldarazpenari buruzko erabagirik ez hartzea.

7.- IBILGAILUAK BIDE PUBLIKOTIK HARTU ETA KENTZEAGAITIKO ORDENANTZAREN ALDARAZPENA ONARTU HASIKERA BATEN, HALA BEHAR BALITZ.

Gaur egungo ordenantzea desglosatzea proposatzen da eta ibilgailuen araberako tarifa desbardinak finkatzea. Epigrafe gehiago ezartzen dira.

Hortaz, zinegotziek aldarazpenaren barri daukien ezker, botoa emon dabe, eta, Bakioko Udalaren Osoko Bilkurak, aho batez (guztira hamar zinegotzi) erabagi hau hartu dau:

1.- Ibilgailuak bide publikotik hartu eta kentzeagaitiko ordenantzaren aldarazpena hasikera batean onestea.

2.- Espedientea 30 egun balioduneko epean jendaurrean ipintea. Horretarako, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, herriko web gunean eta herriko taulan argitaratuko da beharrezko iragarkia. Epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik egon ezik, erabagia behin betikotzat hartuko da. Ordenantzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean oso-osorik argitaratu eta 2017ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu eta ordutik aurrera aplikatuko da.

8.- ESTOLDERIAREN ZERBITZUAREN ORDENANTZAREN ALDARAZPENA ONARTU HASIKERA BATEN, HALA BEHAR BALITZ.

Estolderiaren zerbitzuaren kasuan onartu gura diran tasei buruz erabagirik ez hartzea proposatu dau Amets Jauregizar alkate andreak, horretarako, sastarrak batzeagaitiko zerbitzuaren tasei buruz erabagirik ez hartzeko aitatu dan arrazoi berbera dagolako, hau da, taseak eragin gehien izango daben zergadunen eritxia jasotea.

Beraz, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau:

Estolderiaren zerbitzuaren ordenantzaren aldarazpenari buruzko erabagirik ez hartzea.

9.- TRAKZINO MEKANIKOZKO IBILGAILUEN GANEKO ZERGAREN ORDENANTZAREN ALDARAZPENA ONARTU HASIKERA BATEN, HALA BEHAR BALITZ.

Honako aldaketa hau sartu da:

f) Kuadriziklo arinak diran quadak ziklomotor modura ordainduko dabe zergea. Ezaugarrien ziurtagirian (ibilgailuaren sailkapena) 03 figurea agertzen da lehenengo digitu bietan.

g) Quad kuadrizikloek eta ibilgailu bereziek potentzia fiskalaren arabera ordainduko dabe zergea. Ezaugarrien ziurtagirian (ibilgailuaren sailkapena) 06 figurea agertzen da lehenengo digitu bietan kuadrizikloen kasuan eta 64 figurea ibilgailu berezien kasuan.

h) Autokarabanekek turismo modura ordainduko dabe zergea, potentzia fiskalaren arabera.

Era berean, esan behar da igaz (2015/11/10eko udalbatzan) konpromiso hau hartu genduela: trakzino mekanikozko ibilgailuen ganeko zergearen tarifak aldarazotea, beti be 2017an indarrean egongo diran tarifa guztiak gitxieneko tarifetatik %74,14ko portzentajea gordeteko.

Baina, 2017an indarrean sartzeko, zerga eta tasa batzuk aldarazo doguzan ezkerro (ondasun higiezin zerga, sastarrak batzeagaitiko tasa, estoderia, eta abar.), pentsau da trakzino mekanikozko ganeko zergari buruzko igoera hori ez egitea, herritar batzuek zergen zama handia izan ez daien, batez be ondasun higiezin zergaren kasuan, Foru Aldundiak egindako balio katastralaren berrikuspena dala-eta.

Hortaz, zinegotziek aldarazpenaren barri daukien ezkerro, botoa emon dabe, eta, Bakioko Udalaren Osoko Bilkurak, aho batez (guztira hamar zinegotzi) erabagi hau hartu dau:

1.- Trakzino mekanikozko ibilgailuen ganeko zergaren ordenantzaren aldarazpena hasikera barean onestea.

2.- Aldarazpen espedientea 30 asteguneko epean jendaurrean imintea; izan be, horretarako, iragarkiak argitaratu beharko dira Bizkaiko Aldizkari Ofizialean zein herriko taulan. Epe horren barruan interesatuek espedientea aztertu eta jagokezan arrazoibideak aurkeztu ahal izango dabez. Arrazoibiderik aurkeztu ezean, erabagia behin betikotzat hartuko da.

3.- Aldarazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egutegiko urtearen 1etik indarrean sartu eta ordutik aurrera aplikatuko da, eta horrela jarraituko dau aldarazoten ez dan bitartean.

10.- ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GANEKO ZERGAREN ORDENANTZAREN ALDARAZPENA ONARTU HASIKERA BATEN, HALA BEHAR BALITZ.

Amets Jauregizar alkate andreak ordenantzearen aldarazpenaren edukinaren ganeko azalpena emon dau, eta, indarrean dagoan ordenantzeagaz alderatuz, proposatzen danak daukazan desbardintasunak zehaztu dauz:

- Gaur egun, personeari zergea kobratzen jako berak udaletxean aurkezten dauan aurrekontuari zerga-kargea aplikatuz.
- Ordenantza barriaren arabera, modulu zehatz batzuk aplikatuko dira eta autolikidazinoa egingo da modulu horreek kontuan izanik.
- Egindako obreak kostu gitxiago izan badau, horren interesatuak udaletxean informazinoa aurkeztu behardo dau, zenbatekoan dagoan aldearen arabera, zergaren zati bat berari itzultzeko.

Hortaz, zinegotziek aldarazpenaren barri daukien ezkerro, botoa emon dabe, eta, Bakioko Udalaren Osoko Bilkurak, aho batez (guztira hamar zinegotzi) erabagi hau hartu dau:

1.- Eraikuntza, instalazio eta obren ordenantzaren aldarazpena hasikera batean onestea.

2.- Espedientea 30 egun balioduneko epean jendaurrean ipintea. Horretarako, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, herriko web gunean eta herriko taulan argitaratuko da beharrezko iragarkia. Epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik egon ezik, erabagia behin betikotzat hartuko da. Aldarazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean oso-osorik argitaratu eta 2017ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu eta ordutik aurrera aplikatuko da.

11.- UDALERRI HONETAKO ERREGIMEN FISKALA OSOTZEN DABEN TRIBUTU GUZTIEN KUDEAKETA ETA IKUSKAPENARI BURUZKO ZERGA ORDENANTZEA ONARTU HASIERA BATEN, HALA BEHAR BALIZ.

Amets Jauregizar alkate andreak, dino: ez da zerga ordenantzea, ez dau zergagairik zehazten, eta helburua da zerga ordenantzetan arautzen diran zergak, tasak edota prezio publikoak kobratzeko prozedura arautzea, zergari buruzko Foru Araua kontuan izanik.

Hortaz, zinegotziek aldarazpenaren barri daukien ezkerro, botoa emon dabe, eta, Bakioko Udalaren Osoko Bilkurak, aho batez (guztira hamar zinegotzi) erabagi hau hartu dau:

1.- Udalerri honetako erregimen fiskala osotzen dabenean tributu guztien kudeaketa eta ikuskapenari buruzko zerga ordenantzea hasikera batean onstea.

2.- Ordenantzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean oso-osorik argitaratu eta hamabost egun baliodun epea amaitu eta berehala indarrean sartzea, Toki Araubidearen Oinarriari buruzko Legearen 65-2 eta 70. artikuluen arabera.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoanez, alkate andreak batzar hau 19:45ean emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkatea

Idazkaria